


ERTZAINZA. Aznarren ustez, gaia ez da ertzain gehiago nahi izatea, horretarako aukera izatea edo ez izatea baizik

Ertzainen ordez «polizia eta guardia zibil gehiago» behar direla dio Raxoik

Ertzain gehiago eskatzea «segurtasun kontu bat» dela dio Imazek



BERNARDO RODRIGUEZ / EFE

Raxoi, atzo, alkoholari buruzko kongresuaren aurkezpenean.

Agentziak | MADRIL

«Ertzainen ordez, polizia eta guardia zibil gehiago behar dira une honetan», esan zuen atzo Mariano Raxoi Espainiako Barne ministroak. Ertzaintzak beste 200 kide gehiago izateko Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuaren arteko ika-mikei erantzunez egin zituen adierazpenok Raxoik. *Onda Cero* irratan egindako adierazpenetan Raxoik azaldu zuenez, Polizia eta Guardia Zibilaren kasuan ere «ezin zaie beti beraien beharrei erantzun, aurrekontuak direnak direlako eta horiek orekatu egin behar direlako».

Barne ministroaren ustez, Eusko Jaurlaritza «bazekien ezin izango zela Ertzaintza handitu, kontuak egiteke dituelako, eta auzi hori kupoaren barruan dago».

Raxoik oroitarazi zuenez, «Europar biztanleko polizia gehien dituen tokia da» Euskal Autonomia Erkidegoa. Gaineratu zuenez, «Euskadin segurtasunaren erdia Estatuko Segurtasunerako Indarren esku dago, eskumena Eusko Jaurlaritzarena den arren».

Jose Maria Aznar Espainiako presidentea ere hitz egin zuen Ertzaintzaren auziaren inguruan. Aznarrek esan zuen ertzain, polizia eta guardia zibil gehiago behar direla. Baina gaia ez da horiek «nahi izatea edo ez izatea», hori aurrera era-

ESANAK

MARIANO RAXOI

(Espainiako Barne ministroa)

«Europar biztanleko polizia gehien duen lekua Euskadi da»

JOSE MARIA AZNAR

(Espainiako presidentea)

«Ertzain, polizia eta guardia zibil gehiago behar dira. Baina gauza da, horretarako aukera izatea edo ez izatea»

JOSU JON IMAZ

(Eusko Jaurlaritzako bozeramailea)

«Pertsonen segurtasuna arlo publikotik konpondu behar den arazo bat da»

JAVIER BALZA

(Herrizaingo sailburua)

«Segurtasun arloan hartutako konpromisoak betetzen ari da Herrizaingo Saila»

mateko «aukera izatea edo ez izatea» baizik, nabarmendu zuen.

Imazek «arduragabekeria» egotzi dio Aznarri

Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak «arduragabekeria» jokatzeko egotzi zion Jose Maria Aznarri, Ertzaintzan 200 kide gehiago sartzeko eskaera arbuatu zuelako. Gobernu Kontseiluaren ostean egindako agerraldian, Imazek adierazi zuen Ertzaintzaren hedatzea ez dela finantzaketa arazo bat «pertsonen segurtasunari eragiten dion arazo bat baizik».

Horren haritik, Imazek gaineratu zuenez, «ezin da onartu erantzukizun hori arlo pribatuaren gain gelditzea».

«Pertsonen segurtasuna arlo publikotik konpondu behar den arazo bat da. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritza beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu herritarren segurtasuna eta askatasuna bermatzeko», azaldu zuen.

Gobernu bozeramaileak jakinarazi zuenez, Jaurlaritza neurri batzuk aztertzen ari da eta horiek «zuhurtziaz eta legearen barruan» hartuko dira.

Mayor familiak segurtasun enpresetan interesak dituela berretsi du EAJk

Erredakzioa | DONOSTIA

EAJren Euzkadi Buru Batzarrak berretsi egin zuen atzo bere presidente Xabier Arzalluzek Ertzaintza handitzeko eskaeraren haritik esandakoa. Arzalluzek esan zuen Mayor Oreja sendiak segurtasun konpainietan «interes handiak» dituela. Jaime Mayor Oreja PPko EAeko legebiltzarkideak, baina, gezurtatu egin zuen eta baieztapen hori «ETatik, Pepe Reiren *Ardi Beltza* al-dizkaritik» sortu zela gaineratu zuen.

Orain, Mayor Orejari erantzunez, datu batzuk jakinarazi ditu EAJk. PPko legebiltzarkidearen anaia Jose Maria Mayor Oreja 1984tik 1997ra Proseca eta Protecsa segurtasun enpresetako zuzendari nagusia edo kontseilari delegatua eta Cobra-ko administratzaile bakarra izan dela dio EAJk.

Su-eten garaian Mayor Orejak EAeko PPko kideei euren babeserako guardia pribatuak jarri zizkiela dio EAJk, eta PPk segurtasun enpresa sortu duela. Datuak lortzeko ez duela jo *Ardi Beltza*-ra esan du, baina bai beste argitalpenetara.

PP: «Ezin da ukatu Armadaren balioa barne terrorismoari aurre egiteko»

Agentziak | MADRIL

Espainiako Senatuko Defentsa Batzordeko PPko bozeramaile Agustin Diaz de Merak atzo adierazi zuen ezin dela ukatu Indar Armatuak «barne terrorismoaren kontra» aritzeko duten balioa. «Hori aipatzeko ez da konplexurik izan behar», esan zuen.

«Zergatik ezin dugu joan mundu guztiak joan nahi duen lekura eta inor lau haizetara zabaltzea ausartzen ez dena, hots, Estatuko Segurtasun Indarren eta Indar Armatuaren arteko lankidetzaren eraginkorrera?», galdetu zuen.

SEGURTASUNA

Adostutakoa «atzeratzea» egotzi diote Balzari

Erredakzioa/ DONOSTIA.- ELA, CCOO eta UGT sindikatuek segurtasun arloan lortutako akordioa bete ez izana leporatu zioten atzo Javier Balza Herrizaingo sailburuari. Akordioa azaroaren 28an sinatu zuten sindikatu guztiak eta Balzak zuzentzen duen sailak. Bertan, *Egunsentia* izeneko lan prozedura ezeztatzea eta ertzainen segurtasuna handitzeko materiala erostea adostu zuten. Hiru sindikatuen ustez, «badirudi Balza ez dela gai bere erabakiak aurrera eramateko». Materialaren erosketan eta lan sistema berria ezartzeko prozesuan «atzerapena» salatu zuten sindikatuek.

Egoera bideratzeko Herrizaingo Sailarekin

hainbat aldiz harremanetan jartzen saiatu direla baina ez dutela lortu, esan zuten ELA, CCOO eta UGTk. Sindikatuen ustez, Ertzaintzaren «benetako arazoa, barne antolaketa txarra da».

Javier Balzak sindikatuei erantzun zien atzo ohar baten bidez. Bilera hartan hartutako konpromisoak betetzen ari dela esan zuen. «Lan prozedurak eta taktika operatiboak aztertu» direla eta sindikatuei jakinarazi zaiela gaineratu zuen Balzak. Materiala erosteko proposamen konkretuak egin direla ere esan zuen.

Gezurtatu egin zuen ELA, CCOO eta UGTk Herrizaingo Sailarekin ezin izan dutenik bildu. «Herenegun sailburuak ELAko ordezkariarekin hitz egin zuen. Honek bilera bat egin nahi zuen, ErNE sindikatu kanpo utziz. Bilerak sindikatu guztiakin edo banaka izan behar direla erantzun genien», jakinarazi zuen Herrizaingo Sailak.